



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA
Etxebizitza eta
Gizarte Gaietako
Saila

Eskaintza Inmobiliarioa

2002ko 3. Hiruhilekoa
(0 Azt.)

(Erref. E2025)

2002ko azaroa



AURKIBIDEA

Orrialdea

1. SARRERA	2
2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK	7
2.1. ETXEBIZITZA-KOPURUA	7
2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK	9
3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA	15
3.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK.....	15
3.1.1. <i>Eskaintzan dauden etxebizitzaren sustapenaren ezaugarri orokorrak</i>	15
3.1.2. <i>Salmenten bilakaera</i>	17
3.1.3. <i>Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak eta kuantifikazioa</i>	19
3.1.4. <i>Salgai dauden etxebizitza berriak prezioen arabera</i>	23
3.2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK.....	28
3.2.1. <i>Kuantifikazioa eta ezaugarriak</i>	28
3.2.2. <i>Salgai dauden etxebizitza erabilien prezioak</i>	29
4. ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK	33
5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA ESPARRU GEOGRAFIKOEN ARABERA	37
5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA LIBRE BERRIAK	37
5.2. SALGAI DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA BERRIAK	40
5.3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK.....	42
5.4. ALOKAIRU LIBREAN DAUDEN ETXEBIZITZAK.....	46
5.5. ALOKAIRU BABESTUA DUTEN ETXEBIZITZAK.....	47
6. GARAJE, TRASTELEKU ETA LOKALEN ESKAINTZA	50
6.1. GARAJEEN ESKAINTZA	50
6.1.1. <i>Garaje libreak</i>	50
6.1.2. <i>Garaje babestuak</i>	51
6.2. TRASTELEKUEEN ESKAINTZA.....	52
6.3. MERKATARITZA-LOKALEN ESKAINTZA.....	53
6.3.1. <i>Lokal libreak</i>	53
6.3.2. <i>Lokal babestuak</i>	54



7. MERKATU INMOBILIARIOAREN DINAMIKA ETA PERSPEKTIBAK	57
7.1. EGUNGO DINAMIKA	57
7.1.1. <i>Merkatuaren egoeraren kalifikazioa</i>	<i>57</i>
7.1.2. <i>Salmenten bilakaera eta materializazio-epeak</i>	<i>59</i>
7.1.3. <i>Merkatuaren dinamikan eragina duten faktoreak</i>	<i>61</i>
7.2. PERSPEKTIBAK.....	62
7.2.1. <i>Salmenten bilakaeraren aurreikuspena.....</i>	<i>62</i>
7.2.2. <i>Prezioen bilakaeraren aurreikuspena.....</i>	<i>64</i>
7.2.3. <i>Sustapen berrien hasierako aurreikuspena.....</i>	<i>66</i>
A ERANSKINA. ESTADISTIKA-TAULAK ESKUALDE-EGITUREN, HIRIBURUETAKO ZONEN ETA UDALERRI NAGUSIEN ARABERA	68



KOADROEN AURKIBIDEA

Orrialdea

Eskaintzen

1.1. Koadroa	Egindako inkesta eraginkorren lurraldekako banaketa.	2
1.2. Koadroa	Etxebizitzaren eskaintzaren adierazleen laburpena.	5
2.1. Koadroa	Eskaintzen diren etxebizitzaren bilakaera EAEn	
2.2. Koadroa	EAEn salgai dauden etxebizitzaren m ² erabilgarriko prezioaren bilakaera.*.	8
3.1 Koadroa.	Sustatzaileek zuzenean eskaintako etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak.	16
3.10. Koadroa	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak lurralde historikoka.....	28
3.12. Koadroa	Salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera.....	30
4.1. Koadroa	Alokairu librean eskaintako etxebizitzak eta errentak lurralde historikoka.....	34
4.2 Koadroa	Alokatze librean eskaintako etxebizitzak eta errentak lurralde historikoka.....	34
4.3 Koadroa.	Alokatzeko eskaintako etxebizitzaren ezaugarriak.....	35
5.1. Koadroa	Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak esparru geografikoen arabera.	37
6.1. Koadroa	Salgai eta alokatzeko dauden garaje libreen eskaintza eta prezioak.....	50
7.1. Koadroa	Merkatu inmobiliarioaren dinamismo-indizeak* sustatzaileen eta HJAen arabera	58
A.1. Koadroa	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak eskualde-egituren arabera	69
A.2. Koadroa	Alokatzeko etxebizitza libreak eta errentak eskualde-egituren arabera.....	70
A.3. Koadroa	Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak hiriburuka, zonen arabera	71
A.4. Koadroa	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak hiriburuka, zonen arabera	72
A.5. Koadroa	Alokatzeko etxebizitza libreak eta errentak hiriburuka, zonen arabera	73
A.6. Koadroa.	Udalerrri nagusietan salgai dauden etxebizitza berri libreak.....	73
A.7. Koadroa	Udalerrri nagusietan salgai dauden etxebizitza erabiliak.....	74
A.8. Koadroa	Udalerrri nagusietan alokatzeko dauden etxebizitza libreak eta errentak	74
A.9. Koadroa	Salgai dauden familiabakarreko etxebizitza berriak, esparru geografikoen arabera	75



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. Grafikoa Etxebizitza-kopurua, mota zein joan den urtearekiko aldaketa-tasen arabera	8
2.2. Grafikoa Eskaintzen den etxebizitza-kopuruaren bilakaera, motaren arabera.....	9
3.1. Grafikoa Sustapenen batez besteko tamainaren bilakaera erregimenaren arabera.	16
4.1 Grafikoa. Alokatzet libreen batez besteko errenten bilakaera, lurralde historikoen arabera.	34
5.1. Grafikoa Etxebizitza berri libreen eskaintzaren banaketa, esparru geografikoen arabera.	38
5.2. Grafikoa Etxebizitza berri libreen m ² ko prezioen bilakaera, eskualde-egituren arabera.	39
5.3. Grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen m ² ko prezioa, esparru geografikoaren arabera.	39
5.4 Grafikoa. Salgai dauden etxebizitzaren m ² -aren prezioa, motaren eta esparru geografikoaren arabera	44
5.5. Grafikoa Etxebizitza erabilien m ² ko prezioaren bilakaera, esparru geografikoaren arabera.	45
5.6. Grafikoa Salgai dauden etxebizitza erabilien m ² ko prezioa, eremu geografikoaren arabera.	45
6.1. Grafikoa Salgai dauden garajeen prezioaren bilakaera, Lurralde Historikoen arabera.	52
6.2. Grafikoa Lokalen m ² -ko prezioen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera	55
7.1. Grafikoa Dinamismo-indizeen bilakaera Lurralde Historikoen arabera (Batez besteko higikorak-4)	57
7.2. Grafikoa Merkatuaren dinamikan eragina duten faktoreak	62
7.3. Grafikoa Salmenten aurreikuspenen indizeen bilakaera	64



1. SARRERA



1. SARRERA

- ρ Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak agindutako **Ikei** erakundeak egun duen 2002 urteko hirugarren hiruhilekoari dagokion EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko txostena aurkezten da.
- ρ Txosten hau lantzeko erabili den metodologia, etxebizitzak eskaini dituzten EAEko sustatzaileei eta higiezin jabetzako agenteei (HJA) egindako zenbait inkestatan oinarritu da. Sustatzaileen kolektiboan egindako prospekzioak, kasu honetan, etxebizitzaren eskaintza egiten duten 100 identifikatu ditu (bost etxebizitza baino gehiago dituzten sustapenak); 125 higiezin agenteri egin zaie kontsulta. 1.1. koadroak bakoitzari dagozkion laginen banaketa geografikoa jasotzen du.
- ρ Inkesta honek, berau gauzatutako unean (irailean) eskutan duen eskaintzaren kuantifikazioa zein kualifikazioa egiteko eskatzen dio operadore bakoitzari. Sustatzaileen kasuan, bestela ezin zitekeen moduan, etxebizitza berriez ari gara, eta HOAen kasuan, bai etxebizitza berriez (sustatzaileen bidez saldutakoez), bai erabilitakoez (partikularren bidez saldutakoez). Horrez gain, merkatuaren egoerari buruzko balorazio-galderen sail bat ere gehitzen da.

1.1. Koadroa Egindako inkesta eraginkorren lurraldekako banaketa.

	SUSTATZAILEAK	INMOBILIARIAK
Araba	19	12
Gipuzkoa	42	50
Bizkaia	39	63
EAE	100	125

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3.hiruhilekoa.

- ρ Txostena irakurri aurretik egin beharreko oharren artean, prezioak, EAEko eskaintzen zati nagusia osatzen duten etxebizitza kolektibo (blokeetakoak) dagozkienak direla gogorarazi behar da.
- ρ Denboran izandako bilakaerari dagokionez, txostenean, behatutako aldagaiak (etxebizitza-kopurua edo prezioak azalera erabilgarriko) aurreko urteko hiruhileko berean izan zuen balioarekiko izan dituen aldaketak islatzen dira bereziki, betiere azken hiru hilabeteetan izandako bilakaera ere kontuan izanik.



- ρ Etxebizitzen prezioei dagokienez, batez besteko prezio haztatuak¹ direnez, beren bilakaera ondorengo faktoreen emaitza dela azpimarratu behar da: prezioak, prezio-maila bakoitzeko etxebizitza-kopurua eta eskaintzaren kokapen geografikoa. Etxebizitzen batez besteko prezioetan eragina du, halaber, eskaintzen diren etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaerak eta, orokorrean, beren tipologiak.
- ρ Zentzu honetan, eremu espazial jakin batetako prezio-bariazioak, batez beste-koen bariazioak izango balira bezala ulertu behar dira. Hau da, aurreko denboraldietan baino prezio baxuagoak ez dira eskaintzen diren etxebizitzen kostuaren prezio-jaiste orokor gisa derrigorrez ulertu behar; aitzitik prezio txikiagoko etxebizitzen agerpen handiagoa duen eskaintza-egitura baten konfigurazioari dagozkioa uler liteke .
- ρ Baina hori bai, ahal den neurrian etxebizitzen "saskiaren" osaeran izan diren aldaketek prezioen bilakaeraren interpretazioan eragin dezaketen distortsioa saihesteko, *eredu-etxebizitza* deitu den "produktu" homogeneoago baten jarraipena barne hartzen ari da. Honen dEinizioan parte hartzen duten eskakizunak hauek dira: etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainitakoa, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duen etxebizitza. Akaberaren, merkaturatzeko moduen edo tipologiaren arabera eskaintzaren osaeran izandako aldaketek batez besteko prezio globalean izan dezaketen eragina (edo interferentzia) neutralizatzeko helburua du.
- ρ Hala ere, ematen diren emaitzek lagin izaera dutela esan beharra dago eta hau bereziki garrantzitsua da eskaintzen kuantifikazioari dagokionez. Etxebizitza erabiliei dagokienez azpimarratu beharreko beste gauza bat zera da: aipatutako prezioak saltzaileak *eskatutakoak* dira eta hauek benetan ordaindutakoetatik edo bi alderdien artean negoziatutakoetatik oso desberdinak izan daitezke batzuetan.
- ρ Emaitzazko txostena zazpi kapitulutuan dago egituratuta, honako sarrera hau barne. 2. kapituluak eskaintzaren eta bere bilakaeraren ikuspegi orokorra azaltzen du, hau da, bere bolumena, etxebizitza-motaren eta azalera erabilgarriko prezioen nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako prezio absolutuen arabera (Lurralde historikoei dagokien analisia ondorengo kapituluetan egingo da).

¹ Etxebizitzako zein metro karratuko batez besteko salmenta-prezioak etxebizitza-mota bakoitzaren bolumenaren araberako haztapena eginez kalkulatu dira.



- ρ 3. kapitulua etxebizitzen salmentari buruzkoa da eta hasieran eraikuntza be-
rriak aztertzen ditu, sustapenen ezaugarrietan ematen diren aldaketak nahiz
etxebizitzen eskaintza kuantifikatu eta prezioak aztertzerakoan etxebizitzak be-
rak aztertuz. Ondoren, salgai dauden etxebizitza erabilien ezaugarriak aztertzen
ditu.
- ρ 4. kapituluan, alokatzeko dauden etxebizitzen eskaintzaren tipologia, prezioa
eta bolumenaren bilakaera islatzen da.
- ρ 5. kapituluan ondorengo eremu espazialeko etxebizitzen eskaintza eta pre-
zioak zehazten dira: hiriburuak, hiriburuetakoko eskualde-egiturak, hauek kanpo,
eta lurralde historikoak, hiriburuetakoko eskualde-egiturak kanpo (eranskin ba-
tean geografia-mailako datu zehatzagoak eskaintzen dira).
- ρ 6. kapituluak garaje, lokal eta trastelekuetan lurralde historikoen mailan jaso
diren bolumenak eta prezioak islatzen ditu.
- ρ Azkenik, 7. kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoko merkatu inmobiliarioaren
dinamika islatzen da, inkestaren xede izan diren sustatzaile eta agenteen begie-
kin ikusita, aurreko hiruhilekoarekiko bilakaera nahiz etorkizunerako perspekti-
bak kontuan hartuta.
- ρ Jarraian adierazitako 1.2 Koadroan, aurreko hiruhilekoan, aribidekoan eta au-
rreko urtekoan etxebizitzen merkatu libreari eta babestuari buruz lortutako
funtsezko aldagaien laburpen sintetikoa aurkezten zaigu.



1.2. Koadroa Etxebizitzen eskaintzaren adierazleen laburpena.

MERKATU LIBREA	2001	2002	2002
	3. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa
1. ETXEBIZITZA BERRIA			
• EAEn guztira salgai dagoen etxeb.-kop.	2.762	2.814	2.245
• EAEn lehen aldiz hiruhileko honetan salgai antzemandako etxeb.-kop.	1.011	570	433
• Prezioa/m ² a.e.*-Eredu-etxebizitza** EAE	2.253,8	2.208,1	2.304,7
• Prezioa/m ² a.e.*-Guztira EAE.....	2.271,8	2.302,5	2.422,6
• Prezioa/m ² a.e.*-Hiruhilekoan 1. Aldiz antzemandako EAE.....	2.289,9	2.183,9	2.484,2
• Prezioa/m ² a.e.*-Gasteiz	2.235,8	2.602,4	2.511,8
• Prezioa/m ² a.e.*-Donostia.....	3.017,1	2.956,0	3.096,8
• Prezioa/m ² a.e.*-Bilbao.....	2.073,5	2.090,2	2.527,7
Eskainitako sustapen-kopurua:			
Guztira	131	128	128
Hiruhilekoan lehen aldiz antzemandakoak	25	18	30
2. ETXEBIZITZA ERABILIA			
• Salgai dagoen etxeb.-kop.	8.616	7.872	7.385
• Prezioa/m ² a.e.*-EAE	2.464,1	2.592,1	2.623,9
• Prezioa/m ² a.e.*-Gasteiz.....	2.728,6	2.852,8	2.809,4
• Prezioa/m ² a.e.*-Donostia	3.582,0	3.442,6	3.903,6
• Prezioa/m ² a.e.*-Bilbao.....	2.398,0	2.613,7	2.454,9
3. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA			
• Etxebizitza-kop.	459	359	471
• Errenta/hilean*-EAE.....	625,1	682,6	681,3
• Errenta/hilean*-Gasteiz.....	769,3	729,2	753,1
• Errenta/hilean*-Donostia.....	805,4	897,5	786,6
• Errenta/hilean*-Bilbao	601,0	666,6	689,0
4. MERKATUKO INDIZEAK			
• Dinamismoaren indizea***	40,2	33,9	40,3
• Salmenten aurreikuspen-indizea (hurrengo hiruhil.)***	64,9	44,5	63,4
• Prezioen aurreikuspen-indizea (6 hilabetera)***	59,0	60,7	64,9
• Previsión viv. a ofertar próx. trim.....	563	641	219
	2001	2002	2002
MERKATU BABESTUA	3. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3.º hiruhilekoa
1. ETXEBIZITZA EN SALGAI			
• Etxebizitza-kop. Guztira.....	2.892	2.417	2.731
• Etxebizitza. Sozialak	825	442	639
• Babes ofizialeko etxebizitzak	2.067	1.975	2.092
• Prezioa/m ² a.e.* -Etxebizitza Soziala	516,9	503,1	505,5
• Prezioa/m ² a.e.*-Babes ofizialeko etxebizitza.....	877,5	994,1	991,0
2. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA			
• Etxebizitza-kop. Guztira.....	379	287	391
• Etxebizitza Sozialak	347	243	327
• Babes ofizialeko etxebizitza.....	32	44	64
• Errenta/hilean*-Etxebizitza Soziala	180,3	176,8	161,8
• Errenta/hilean*- Babes ofizialeko etxebizitza	282,5	302,5	327,3

(*): €

(**) : Eredu-etxebizitza: berria, kolektiboa, erregimen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainia, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena.

(*): 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) bitartean mugitzen dira.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK



2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2.1. ETXEBIZITZA-KOPURUA

- ρ 2002ko hirugarren hiruhilekoan sustatzaileen eta higiezinaren jabetzako agenteen artean egindako Inkestaren arabera, **eskaintzan** dauden etxebizitza-kopuru osoa 13.220 unitatekoa da.
- ρ **Salgai** dauden etxebizitzek eskaintzaren guztizkoaren %94 bereganatzen dute eta, gainontzeko %6 **alokairuko etxebizitzak** dira. Kopuru absolutuei dagokienez, antzemandako bolumenak 12.360 eta 860 unitate dira, hurrenez hurren.
- ρ **Salgai** dauden etxebizitzetako errepertorioa gero ikusiko dugu, merkatu libreari dagokiola %78 (9.630); gainontzeko %22 (2.731) sektore babestutako etxebizitzak dira. Hala ere, eraikuntza berriko merkatuari bakarrik errepertorioa gero baieztatuko dugu bertan biltzen dela eskaintzaren %55.
- ρ Salgai dagoen etxebizitza berriaren banaketari dagokienez, etxebizitza berria izan zein erabilia izan, **bigarren eskuko etxebizitzaren merkatua** (%77, 7.385 etxebizitza) **eraikuntza berriko etxebizitzaren merkatua** (%23, 2.245 etxebizitza).
- ρ Babestutako etxebizitzaren artean babes ofizialekoak eta etxebizitza sozialak bereizi behar dira. Lehenengoaren kasuan, hots, babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, eskaintzaren %77 bertan biltzen da (2.092) eta gainontzeko %23 (639) etxebizitza sozialei dagokie.
- ρ Alokairuan dauden etxebizitzetako dagokienez, antzemandako eraikuntza berriko etxebizitza guztiak sektore babestuan biltzen dira (391 unitate), eta etxebizitza libre guztiak, berriz, partikularren etxebizitza erabiliak dira (471 unitate).
- ρ Eskaintutako guztizko bolumenak 2001eko hirugarren hiruhilekoarekiko izandako **bilakaerak** %12ko beherakada izan dela islatzen du. Salgai dagoen etxebizitzari dagokienez, merkatu guztietan izan da gutxitzea, baina bereziki nabarmena izan da eraikuntza berriko etxebizitza librearen kasuan (-%19). Beherakadaren arrazoi nagusia proiektu berriak martxan jarri ez direla da (hiruhileko honetan 4333 etxebizitza berri bakarrik antzeman dira eskaintzan, duela urtebete antzemandakoaren erdia).



- p Alokairuaren erregimenaren eskaintzak gorakada txiki bat izan du, bai etxebizitza babestuen kasuan bai merkatu librearen kasuan (+%3 bi kasuetan).


2.1. Koadroa Eskaintzen diren etxebizitzaren bilakaera EAEn.

	SALMENTA					ALOKATZEKO	
	ERABILIA	LIBREA	BERRIA			LIBREA	BABESTUA
			BABESTUA				
			Guztira	P.O	Soziala		
1994 batez b.	7.029	3.331	1.391	1.133	258	1.023	5
1995 batez b.	7.646	2.718	1.317	1.105	212	986	--
1996 batez b.	11.071	3.305	1.816	1.501	315	1.147	4
1997 batez b.	10.572	3.032	1.035	816	219	1.290	267
1998 batez b.	7.142	2.248	1.493	767	726	1.367	48
1999 batez b.	4.589	2.363	2.197	1.332	865	985	125
2000 batez b.	5.836	3.136	2.477	1.456	1.021	662	353
2001 batez b.	8.532	2.819	2.959	2.166	793	409	421
2001 III	8.616	2.762	2.892	2.067	825	458	379
2001 IV	9.472	2.905	3.398	2.482	916	380	275
2002 I	8.916	3.107	2.246	1.728	518	387	1.232
2002 II	7.872	2.814	2.417	1.975	442	359	287
2002 III	7.385	2.245	2.731	2.092	639	471	391

*: Alokatzeko etxebizitza libreen eta babestuen eskaintza barne.


Iturria : EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3.hiruhilekoa.

2.1. Grafikoa Etxebizitza-kopurua, mota zein joan den urtearekiko aldaketa-tasen arabera





2.2. Grafikoa Eskaintzen den etxebizitza-kopuruaren bilakaera, motaren arabera



2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK

- ρ **Merkatu libreko etxebizitzaren** (berriak eta erabiliak batera) **metro karra-tuko batez besteko prezioa** EAEn 2.577 €/m² da 2002ko hirugarren hiruhi-lekoari dagokionez. Etxebizitza libre berrien prezioa 2.423 €/m² da eta bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa, berriz, 2.624 €/m² da².
- ρ **Eraikuntza berriko merkatu libreari dagokionez**, prezioen hazkunde-tasa EAE bere osotasunean hartuta %6,7 izan da eta 2000 eta 2001 urteetako datuek hazkunde-erritmoa motelagoa izan da (urteko %20 inguruko tasak). Hala ere, Lurraldeen araberrako desberdintasunak ez dira desagertu; horrela, Bizkaiak izan du hazkunde handiena (+%12, 01-III aldiarekiko). Araban eta

² Datua aztertzeko orduan jarraian aipatzen diren bi alderdiak kontuan hartu behar dira: 1) Eskaintzatik eskatutako prezioak dira, hortaz, orokorrean, bi aldeen arteko negoziaketa egin ondoren eskaera egin duen aldeak ordainduko duenaren gaintetik egongo dira, eta 2) hiru euskal hiri-buruetan mota honetako eskaintzak agerpen handia du: %61.



Gipuzkoan³ izandako hazkundera neurritsuagoa izan da (+%2,4 eta +%2,2, hurrenez hurren).

- ρ **Etxebizitza erabiliari dagokionez**, EAEk guztira lortutako hazkundera etxebizitza berriaren kasuan lortutakoaren (+%6,5) parekoa da eta aurreko hiruhilekoetako hazkunde-erritmoari eutsi zaio (2001eko batez bestekoa baino zertxobait altuagoa, baina aurreko urteetakoak baino baxuagoa). Oraingoan ere lurraldeen arabera emaitza desberdinak lortu dira eta Gipuzkoa dugu hazkunde handiena izan duen lurraldea (+%16, 01-III aldiarekiko); Araba eta Bizkaiako tasak askoz ere baxuagoak dira (+%3 eta +%5, hurrenez hurren).
- ρ **Babestutako etxebizitzaren** batez besteko prezioa (eratxikitakoak kanpo) 877 €/m² da; BOEn modalitatearen prezioa 991 €/m² da, eta etxebizitza sozialena, berriz, 506/m².
- ρ **Eredu-etxebizitzaren** prezioa⁴ 2.305 €/m² da, hain zuzen, hiruhileko honetan antzemandako etxebizitza libre berrien guztizkoak izandako prezioa baino %5 baxuagoa. 2001eko bigarren hiruhileko datuekiko erkatuz gero, %2ko hazkundera izan dela baieztatuko dugu.

³ 3. kapituluaren prezioek lurraldeka izandako portaera ikusiko dugu, eta 5. kapituluaren berriz, aipatu aldagaia geografia-mailako zehaztasun handiagoarekin aztertzen da.

⁴ Ikus "eredu-etxebizitza" kontzeptua azaltzen duen Sarrera.



2.2 Koadroa. EAEn salgai dauden etxebizitzaren m² erabilgarriko prezioaren bilakaera.*


	ETXEBIZITZA LIBREAK *				ETXEBIZITZA BABES- TUAK *	
	LIBREAK GUZTIRA (**)	ERABILIA	BERRIA	ERE- DU-ETXEB	BO	Soziala
1994 batez b.	1.292,2	1.328,2	1.268,1	1.111,9	643,1	
1995 batez b.	1.388,3	1.352,3	1.496,5	1.256,1	703,2	
1996 batez b.	1.424,4	1.400,4	1.502,5	1.238,1	697,2	
1997 batez b.	1.424,4	1.406,4	1.478,5	1.160,0	703,2	
1998 batez b.	1.460,5	1.454,4	1.490,5	1.238,1	637,1	
1999 batez b.	1.773,0	1.881,2	1.568,6	1.424,4	703,2	
2000 batez b.	2.169,7	2.337,9	1.839,1	1.562,6	901,8	550,0
2001 batez b.	2.360,5	2.408,4	2.219,7	2.155,6	922,8	520,5
2001 III	2.416,1	2.464,1	2.271,8	2.253,8	877,5	516,9
2001 IV	2.337,9	2.373,2	2.219,7	2.083,4	907,6	531,4
2002 I	2.495,0	2.572,8	2.282,0	2.176,1	1.008,6	512,6
2002 II	2.515,8	2.592,1	2.302,5	2.208,1	994,1	503,1
2002 III	2.577,1	2.623,9	2.422,6	2.304,7	991,0	505,5

(*) €/m².


(**) Etxebizitza libre berrien eta erabilien batez besteko prezioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3.hiruhilekoa.

2.3. Grafikoa Etxebizitzaren m²ko prezioen bilakaera, moten arabera.



2.4. Grafikoa m² erabilgarriko prezioak eta urteko bariazio-tasak etxebizitza-motaren arabera.



- ρ **Etxebizitzaren batez besteko prezioa** 2212.000 € da merkatu librearen kasuan (berriak eta erabiliak batera), eta 65.000 € da sektore babestuaren kasuan (BO eta Sozialak). Salgai dauden etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa 215.000 € da, eta bigarren eskuko etxebizitzena⁵ (hiruhileko honetan antzemandakoak), berriz, 224.000 €.
- ρ Partikularrek, HJAen bitartez EAEn eskaintzen dituzten etxebizitzaren alokairu librearen batez besteko errenta 681 € hileko da (2002ko hirugarren hiruhilekoan lortutako 625 € baino %9 altuagoa).

⁵ Ikus 9. orri-oina



2.3. Koadroa EAEn eskaintzen diren etxebizitzaren prezioaren eta errentaren bilakaera.

		SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK *				ALOKATZEKO ETXEBIZITZA **	
		ETXEBIZITZA LIBREA GUZTIRA (***)	ETXEBIZITZA BERRIA		ETXEBIZITZA ERABILIA	BABESTUA	LIBREA
			BO/SOZIALAK	LI-BREAKS			
1994	batez b.	116,0	49,9	120,2	111,2	--	583,0
1995	batez b.	129,2	48,7	136,4	126,2	--	534,9
1996	batez b.	126,2	51,1	134,6	123,8	--	528,9
1997	batez b.	126,8	52,3	125,6	127,4	--	528,9
1998	batez b.	133,4	46,3	125,0	136,4	144,0	528,9
1999	batez b.	156,9	54,1	142,4	164,1	154,5	565,0
2000	batez b.	186,3	55,9	161,1	200,1	184,5	595,0
2001	batez b.	201,2	60,7	194,9	203,1	187,3	634,0
2001	III	201,9	57,7	197,7	203,1	186,3	625,1
	IV	197,6	60,0	191,9	199,3	197,0	636,8
2002	I	204,5	65,6	197,0	207,3	165,6	683,6
	II	211,6	66,9	198,9	216,1	196,1	682,6
	III	222,1	64,9	215,1	224,2	188,9	681,3

(*) mila € etxebizitza bakoitzagatik.

(**) €/hilean.

(**) Etxebizitza libre berrien eta erabilien batez besteko prezioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ES- KANTZA



3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINITZA

3.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK

3.1.1. Eskaintzan dauden etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak⁶

- ρ 2002ko hirugarren hiruhilekoari dagokion inkestan bildutako eskaintzan dauden **etxebizitza-sustapenen kopurua** 166koa da (orain urtebete baino 15 sustapen gutxiago), denetara bere baitan 7.815 etxebizitza hartzen dituelarik (2001eko aldi berean lortutakoa baino 1.202 unitate gutxiago). Sustapen horietatik 43 hiruhileko honetan lehenengo aldiz antzeman dira (duela urtebete 33, 1.480 etxebizitza barne hartuta (guztizkoaren %19).
- ρ Sustapenaren **erregimenari** dagokionez, 128 libreak dira (iaz 131), babes ofizialekoak 26 (iaz 31) eta Sozialak 12 (iaz 19).
- ρ Antzemandako guztizkoa kontuan hartuta, sustapenaren **batez besteko tamaina** 47 etxebizitzakoa da. Sustapen libreen kasuan, lortutako batez bestekoa 37 etxebizitza/sustapeneko da eta, sektore babestuaren kasuan 823 etxebizitza/sustapeneko (azken bi urteotan mota honetako sustapenetan izandako goranzko joeraren ildotik)
- ρ 16 etxebizitza baino gutxiagoko sustapenak sustapen libreen %31 dira. Sustapen babestuei dagokienez, tamaina txikien dutenak guztizkoaren %18 dira.

⁶ Gainerakoak ez bezala, atal hau sustatzaileen inkestatik lortutako informazioan bakarrik oinarritzen da eta sustapena erreferentziako unitate gisa erabiltzen du.




3.1 Koadroa. Sustatzaileek zuzenean eskainitako etxebizitzaren sustapenen ezaugarri orokorrak.

	HIRUHILEKOA GUZTIRA	SUSTAPEN BERRIAK
KOP. de promociones.....	166	43
Libreak	128	30
BO/Sozialak.....	38	13
KOP. viv. Incluidas en las promociones.	7.815	1.480
Libreak	4.693	693
BO/Sozialak.....	3.122	787
Tamaño medio promociones (kop. viv.)	47	34
Libreak	37	23
BO/Sozialak.....	82	61
KOP. de promociones libreak según tamaño		
< 16 etxebizitza-kop.....	40	12
16-35 etxebizitza-kop.	49	13
> 35 etxebizitza-kop.....	39	5
KOP. de promociones babestuak s/tamaño		
< 16 etxebizitza-kop.....	7	4
16-35 etxebizitza-kop.	7	1
> 35 etxebizitza-kop.....	24	8

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa

3.1. Grafikoa Sustapenen batez besteko tamainaren bilakaera erregimenaren arabera.



p Etxebizitzaren **akabera-mailari** dagokionez, luxuzko estandarrak sustapenen guztizkoaren %11 hartzen du (guztiak erregimen libreak), %42 goi-mailako es-



tandarrekoak dira (denak libreak), eta %47 estandar *normalekoak* dira (babestu guztiak eta libreen %31).


3.1.2. Salmenten bilakaera

- ρ Arreta **sustapen libreko** etxebizitzetan jartzen badugu, etxebizitzak merkatuan duten egoeraren arabera sailkatzeko orduan esango dugu, sustapen libreko etxebizitza guztien artetik %43 salgai dagoela (%40 duela urtebete); %55, berriz, salduta dago, eta gainontzeko %2 erreserban.
- ρ Termino absolutuetan, merkatuan zuzenean sustatzaileek salgai jarritako etxebizitza berri libreen kopurua guztira 2.031 unitatekoa da (2.310 ziren 01-III aldian). Guztizko honetatik, %17 lehenengo aldiz hiruhileko honetan antzeman diren sustapen berriak dira.
- ρ Bestalde, **duela hiru hilabete salgai zeuden etxebizitza** libreak bakarrik kontuan izanik, itxurazko salmenten bilakaeraren hiruhileko jarraipena egin daiteke. Horrela esan daiteke, 2002ko hirugarren hiruhilekoan salgai zeuden etxebizitzen %30 salduta dagoela (sustatzaileen bitartez).
- ρ 2002ko hirugarren hiruhilekoan saldutako etxebizitza-kopurua 2001eko aldi berekoa baino %42 altuagoa izan da eta sustatzaileek eskainitako etxebizitza-bolumena iazkoa baino %12 baxuagoa izan da⁷. Datuok irakurrita pentsa daiteke, etxebizitza libreen salmenta suspertzen ari dela.

⁷ Gogoan izan azterketa honetan sustatzaileengandik zuzenean jasotako eskaintza soilik hartzen dela kontuan eta, hortaz, HJAen eskuetan dagoen etxe berrien eskaintza ez dela kontuan hartzen.



3.2. Grafikoa Sustapen libreetan barne hartutako etxebizitzaren eta salgai dauden etxebizitza libreen kopuruen bilakaera*.



(*): Gogoan izan azterketa honetan sustatzaileengandik zuzenean jasotako eskaintza soilik hartzen dela aintzat eta, hortaz, HJAek merkaturatutakoak kanpoan geratzen dira.

3.2 Koadroa Salmenten bilakaera eta erregimen libreko etxebizitzaren stockaren iraupena.*

		Azken hiruhilekoan saldutako etxebizitzaren %, aurreko hiruhileko eskaintzarakikoa	Salmenten bariantzioaren %, aurreko urteko hiruhileko berarakikoa	Eskaintza-bolumenaren bariantzioaren %, aurreko urteko hiruhileko berarakikoa	Stockaren iraupena (hilabeteak) (egungo salmenterritmoan)
2000	I	51,5	-20,2	-36,3	6
	II	44,2	-33,1	-7,7	10
	III	45,3	-27,9	21,9	7
	IV	31,4	-20,8	120,5	12
2001	I	59,7	155,3	54,3	5
	II	39,5	37,9	-15,5	4
	III	23,8	-55,6	2,4	9
	IV	34,9	13,8	-27,3	12
2002	I	36,4	-55,6	16,0	10
	II	28,4	-16,8	12,5	8
	III	30,1	42,3	-12,1	8

(^): Sustatzaileek zuzenean eskaintutakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



3.3. Koadroa Erregimen libreko sustapenetan barne hartutako etxebizitzaren bilakaera.*

	<i>ETXEBIZITZAK GUZTIRA</i>	<i>SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK</i>	<i>GUZTIZKOAREKIKO SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK</i>
1994 batez b.	3.199	1.612	50,3
1995 batez b.	4.573	1.734	38,0
1996 batez b.	6.527	2.321	35,5
1997 batez b.	6.679	2.393	35,8
1998 batez b.	4.813	1.911	39,7
1999 batez b.	4.653	2.188	46,9
2000 batez b.	5.330	2.499	46,9
2001 batez b.	5.712	2.387	41,8
2001 III	5.746	2.310	40,2
IV	5.767	2.610	45,3
2002 I	5.921	2.873	48,5
II	5.229	2.418	46,2
III	4.693	2.031	43,3

(*): Sustatzaileek zuzenean eskainitakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.

3.1.3. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak eta kuantifikazioa

- ρ 2002ko bigarren hiruhilekoan egindako inkesten arabera, **salgai dauden etxebizitza berrien guztizko kopurua** (libreak eta babestuak) 4.976 unitatekoa da. Guztizko honetatik %96 sustatzaileei egindako inkestaren bitartez antzeman dira, eta gainerako %4 etxebizitza berriak sustatzailearen kontura merkaturatzen dituzten agentzia inmobiliarioetan bildutako informaziotik datoz.
- ρ **Lurraldeen arabera**, Bizkaian egin da eskaintzaren %69; Gipuzkoan bildu da eskaintzaren %24 eta, gainontzeko %7 Araban eskaini da.
- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien **sustapen-erregimenaren** arabera, honakoa da salgai dauden etxebizitza berrien banaketa: %45 libreak (2.245 etxebizitza), %42 babes ofizialekoak (2.092 etxebizitza) eta gainerako %13sozialak dira (639 etxebizitza).
- ρ Honako hiruhileko honetan antzemandako salgai dauden etxebizitza berrien guztizko bolumena 2001eko hirugarren hiruhilekoan antzemandakoa baino %12 baxuagoa izan da. Hala ere, babes-erregimenarekin lotuta egoera desberdinak ikus daitezke: merkatu babestuak %6ko beherakada izan du (hiruhi-



leko bariazioa positiboa izan bada ere, +%13), baina esanguratsuagoa izan da merkatu libreak izandako murrizketa (-%19).

- ρ Etxebizitza berri librearen eskaintzak izandako murrizketaren eragilea izan da hiruhileko honetan **lehenengo aldiz antzemandako etxebizitza-kopuruak** behera egin duela (433 unitate, duela urtebete egindako eskaintza baino %57 gutxiago eta aurreko hiruhilekoan izandako balioa baino %24 baxuagoa); horren arabera, proiektu berriak atzeratzen ari direla uler daiteke.
- ρ Bestalde, **salgai dauden etxebizitza libreen eskaintzaren hiruhileko berrikuntza-indizea**, hau da, hiruhileko honetan antzemandako etxebizitzek eskaintza osoaren (sustatzaileen edo HJAen bitartez) gainean duten portzentajea, %19koa da (%37 duela urtebete).
- ρ **Lurraldeen arabera**, multzo babestuaren bilakaera desberdina izan da Bizkaian, alegia, eskainitako etxebizitza-kopuruak gorakada garrantzitsua ezagutu du (+%19) eta, Araban eta Gipuzkoan, berriz, aurten egindako eskaintza iazkoa baino eskasagoa izan da.
- ρ Horrez gain, merkatu libreak egindako eskaintzaren bolumena nabarmenki murriztu bada ere, bereziki nabarmena izan da Bizkaian (-%26). Gipuzkoan, hiruhileko honetan antzemandako etxebizitza-bolumena iazko aldi berdinean antzemandakoa baino %14 baxuagoa da. Araban, berriz, %4 murriztu da.

3.4. Koadroa Salgai dauden etxebizitza berriak lurralde historikoen arabera.

	GUZTIRA		BO/SOZIALAK		LIBREAK	
	KOP.	± % (*)	KOP.	± % (*)	KOP.	± % (*)
Araba	356	-26,9	32	-78,5	324	-4,1
Gipuzkoa	1.199	-33,3	263	-62,6	936	-14,4
Bizkaia	3.421	1,5	2.436	19,4	985	-25,9
EAE	4.976	-12,0	2.731	-5,6	2.245	-18,7

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko bariazioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa

- ρ Eskainitako etxebizitzaren **eraikuntza-faseari dagokionez**, berriz ere arreta sustapen libreetan jartzen badugu, antzemandako salgai dauden etxebizitza guztien %91 obra-fasean daudela, %6 proiektu-fasean (azken bi urteotan behera egin du nabarmenki kopuruak) eta %3 bukatuta daudela ikus dezakegu.



- p Salgai dauden etxebizitza berrien **tipologiari** dagokionez, %16 baino ez dira familiabakarrak/bi familiakoak edo adosatua, eta etxebizitza babestuen kasuan ez da mota horretako modalitatetik eskaintzen.
- p Salgai dauden etxebizitzaren **batez besteko tamaina** 80 m² erabilgarri da,; babestuen batez besteko azalera 74 m² da, duela urtebete bezalaxe, eta libreak, berriz, 89 m²-ko batez besteko azalera dute (87 m², II-01). Lurraldeen arabera ez dago desberdintasun azpimarragarriarik. etxebizitza berri libreen batez besteko azalera 80 m² ingurukoa da eta Araban 86 m² ingurukoa. Gipuzkoan, etxebizitza berri libreen batez besteko azalera 81 m² da

3.5. Koadroa Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak.


	BO/SOZIALAK (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA*					
Unif./Bifamiliar	0,0	15,6	31,8	13,0	12,8
Colectiva	100,0	84,4	68,2	87,0	87,2
AZALERA ERABILGARRIA					
< 60 m ²	14,9	5,2	1,5	5,8	5,9
61-75 m ²	37,3	12,2	6,2	18,4	8,3
76-90 m ²	47,8	38,4	37,0	30,1	46,6
91-120 m ²	0,0	25,7	22,8	26,7	25,8
> 120 m ²	0,0	18,5	32,4	19,0	13,4
ERAIKUNTZA-FASEA*					
Amaituta	7,1	3,4	3,4	6,5	0,4
Obran	89,4	90,6	91,4	81,5	99,6
Projektuan	3,5	6,0	5,2	12,0	0,0

(*): Agentzia inbentarioetan merkaturatutako sustapenetako etxebizitzari buruzko informazioak ez da barne hartzen.


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



3.3. Grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen ezaugarriak.



3.4. Grafikoa Eskaintza libre osoaren eta hiruhilekoan lehen aldiz antzemandakoaren ezaugarrien konparazioa.





3.1.4. Salgai dauden etxebizitza berriak prezioen arabera

- ρ EAEko etxebizitza berri libreen **metro karratu erabilgarriaren batez besteko prezioa** 2.423 € da, hau da, 2001eko hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoa baino %6,7 gehiago.
- ρ **Hiruhileko honetan lehen aldiz antzemandako**⁸ etxebizitza libreen batez besteko prezioa 2.484 €/m² erabilgarria da, eskaintzaren guztizkoaren balioa baino %2,5 gehiago, eta duela urtebete antzemandako eskaintza baino %8 gehiago.
- ρ Lurraldeen arabera, prezioek bilakaera anitzak izan dituzte: Araban eta Gipuzkoan etxebizitzaren prezioak hazkunde neurritsua izan du (+%2 01-III aldiarekiko bi kasuetan); Bizkaian antzemandako batez besteko prezioa 2001eko aldi berdinean antzemandakoa baino zertxobait altuagoa izan da (+%12).
- ρ Bizkaian erregistratu da batez besteko prezio altuena (2.504 €/m²), hirugarren hiruhilekoz jarraian, eta Gipuzkoakoa (2.408 €/m²) baino %4 altuagoa izan da. Araban erregistratu dira prezio baxuenak (2.161 €/m²).
- ρ Azken hiruhilekoetan jada aipatu dugu lurraldeen arabera prezioen arteko desberdintasunak gero eta txikiagoak direla. Horren arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik, Bizkaian prezioek izandako gorakada izugarri handia eta, bestetik, Araban eta Gipuzkoan izandako bilakaera neurritsuagoa. Ondorioz, Bizkaia da EAEko metro karratuko batez besteko preziorik altuenak dituen lurraldea. Gainera, kontuan hartu behar da HJAen aurreikuspenen arabera, datozen sei hilabeteotan prezioek berriro gora egingo dutela Bizkaian.
- ρ **Etxebizitza babestuen** metro karratu erabilgarriaren batez besteko prezioa 877 € da⁹, (+%13, 01-III), hain zuzen, babes ofizialeko batez bestekoaren (991 €/m²) eta sozialen batez bestekoaren arteko (506 €/m²) batez besteko haztatua. Lurraldeka, BOEn batez besteko prezioa 1.027 €/m² da Gipuzkoan eta 882 €/m² Araban. Etxebizitza sozialekin lotuta, honako hiruhileko honetan Bizkaian egin da etxebizitza sozialen eskaintza bakarra, joan den hiruhilekoan bezalaxe.

⁸ Berriki hasitakoek dagozkie batik bat.

⁹ Eratzkitakoak kanpo.



ρ **Eredu-etxebizitzaren** prezioa 2.305 €/m² da (etxebizitza berria eta sustapen librekoa, eraikin kolektiboan kokatua, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena), Euskal Autonomia Erkidegoan eskainitako etxebizitza berri librearen batez besteko prezio globala baino %5 merkeagoa da hiruhileko honetan (2.423 €/m²). Urteen arabera, bariazio-tasak %2ko gorakada izan du.


3.6. Koadroa Salgai dauden etxebizitza berrien m² erabilgarriko prezioa lurralde historikoen arabera.

	BO/SOZIALAK		LIBREAK	
	Euro	± % (*)	Euro	± % (*)
Araba	882,1	34,7	2.161,0	2,4
Gipuzkoa.....	1.026,7	19,6	2.408,1	2,2
Bizkaia.....	861,2	14,6	2.503,7	11,7
EAE.....	877,4	13,1	2.422,6	6,7

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko prezioekiko bariazioa.


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.

3.5. Grafikoa Etxebizitza berri librearen m² ko prezioa, lurralde historikoen arabera.





3.6. Grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libre guztien eta hiruhileko bakoitzean antzemandakoaren m²ko prezioaren bilakaera.



3.7 Koadroa. Etxebizitza berri libreen m² erabilgarriko prezioa ezaugarrien arabera.


	Euro/ m ²
ERAIKUNTZA-MOTA	
Uni/Bifamiliar	2.218
Kolektiboa	2.423
AKABERA*	
Luxuzkoa	2.879
Altua	2.398
Normala	2.094
Baxua	--
AZALERA ERABILGARRIA	
< 60 m ²	2.840
61-75 m ²	2.356
76-90 m ²	2.474
91-120 m ²	2.325
> 120 m ²	2.205
ESKAITZAN EGON DEN DENBORA - MERKATURATZEKO MODUA	
Hiruhileko honetan sustatzaileak zuzenean	2.491
Hiruhileko honetan HJA bidez	2.461
Aurreko hiruhilekoetan sustatzaileak zuzenean	2.419
Aurreko hiruhilekoetan HJA bidez	2.287
EREDU-ETXEBIZITZA	2.305

(*): HJAen bidez merkaturatutako sustapenei buruzko informaziorik ez da barne hartzen.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



3.7 Grafikoa. Etxebizitza berri libreen m² erabilgarriko prezioa ezaugarrien arabera.



- ρ **Etxebizitza berri libreen batez besteko prezioa** 215.000 € da (197.000 € 2001-III aldian). Lurraldean arabera, prezio altuena Bizkaikoa da, 221.000 € eta baxuena Arabakoa, 184.000 €; Gipuzkoa tartean kokatuta dago (217.000 €).
- ρ **Etxebizitza babestuaren batez besteko prezioa** (eratxikitakoak kanpo) 65.000 € da, Gipuzkoako 84.000 € (guztiak BO erregimenekoak) eta Bizkaiko 63.000 € artean (%74 BO eta %26 sozialak). Arabako etxebizitzaren batez besteko prezioa, azkenik, 73.000 € da (guztiak BOE).

3.8. Koadroa Salgai dauden etxebizitza berri libreen prezioa lurralde historikoen arabera

	BO/SOZIALAK		LIBREAK	
	Mila Euro	± % (*)	Mila Euro	± % (*)
Araba	72,8	44,2	183,6	9,1
Gipuzkoa.....	84,1	26,1	216,9	5,5
Bizkaia.....	62,7	14,6	221,4	12,0
EAE	64,9	12,5	215,1	8,8

(*): Aurreko urteko hiruhileko bereko prezioekiko bariazioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.




3.9. koadroa Salgai dauden etxebizitza berrien banaketa prezio-tarteen arabera

PREZIOA	BO/SOZIALAK (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
< 54 mila €.....	31,2	--	--	--	--
De 54,1 a 72,1 mila €	26,3	0,2	1,5	--	--
De 72,1 a 96,2 mila €.	41,8	0,7	--	1,5	0,2
De 96,3 a 120,3 mila €.	0,7	2,9	0,6	4,4	2,1
De 120,4 a 150,3 mila €	--	11,3	18,5	11,8	8,4
De 150,4 a 180,3 mila €.	--	15,1	11,4	17,8	13,8
De 180,4 a 300,5 mila €.	--	50,0	48,8	43,6	56,5
300,6 mila € eta gehiago	--	19,8	19,1	20,9	18,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiru-hilekoa

- Etxebizitza berri libreen prezio-tarteen araberako banaketari** erreparatuz gero, guztien artetik %15 bakarrik dira 150.000 € baino merkeagoak. Gainera, azpimarragarria da horien %70ek 180.000 € gainditzen duela (%53 01-III) eta bosten artetik batek 300.000 € prezioa gainditzen du (EAEko hiru lurraldeetan berdin).

3.8. Grafikoa Etxebizitza berri libreen banaketa prezio-tarteen arabera, Lurraldeka.





3.2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK.

3.2.1. Kuantifikazioa eta ezaugarriak

- ρ 2002ko hirugarren hiruhilekoan egindako inkesten arabera, salgai dagoen bigarren eskuko **etxebizitza-kopurua** 7.385 unitate da; hortaz, 2001eko hiruhileko berdinarekiko %14ko murrizketa ikus daiteke.
- ρ Azken hiruhilekoetan izandako bilakaera aztertuz gero ikusiko dugu, oraingoa ere HJAK egindako inkestetan antzemandako etxebizitzaren bolumenak atzera egin duela, eta honakoa hirugarren hiruhilekoa da jarraian. Hiru lurraldeetan gauza berdina gertatu da baina bereziki nabarmena izan da Arabaren kasuan; Gipuzkoak eta Bizkaiak izandako atzerapena ez da hain nabarmena izan.

3.20. Koadroa Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak lurralde historikoka.

	ETXEBIZITZA-KOP.		PREZIOA/ m ² erabilgarria		PREZIOA/ETXEBIZITZA	
	KOP.	± % (*)	Euro/m ²	± % (*)	Mila Euro	± % (*)
Araba	1.870	-31,4	2.786,9	3,3	242,0	13,1
Gipuzkoa	1.279	-5,0	3.296,5	16,2	290,6	9,9
Bizkaia	4.236	-6,8	2.350,5	5,4	196,5	8,6
EAE	7.385	-14,3	2.623,9	6,5	224,2	10,4

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko bariazioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.

3.11. Koadroa Salgai dauden etxebizitza erabilien ezaugarriak.

	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA				
Familiab/Familia bik.....	1,6	0,9	2,7	1,6
Kolektiboa	98,4	99,1	97,3	98,4
AZALERA ERABILGARRIA				
< 60 m ²	16,2	13,6	11,7	18,6
61-75 m ²	28,3	25,8	24,9	30,4
76-90 m ²	26,4	29,8	26,6	24,9
91-120 m ²	18,0	19,0	21,9	16,4
> 120 m ²	11,1	11,8	14,8	9,7

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



- ρ Salgai dauden etxebizitza erabilien **batez besteko azalera erabilgarria** 89 m² da. Tamaina handien duten etxebizitzak Gipuzkoan daude, 91 m², eta ondoren agertzen dira Arabakoak (90 m²) eta Bizkaikoak (87 m²).

3.2.2. Salgai dauden etxebizitza erabilien prezioak¹⁰


- ρ Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren **metro karratu erabilgarriaren batez besteko prezioa** 2.624 € da, hau da, 2001eko hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoa baino %6,5 altuagoa. EAE bere osotasunean hartuta, hiruhileko hazkunde-tasa (+%1,2) ikusita esan daiteke prezioei eutsi egingo zaiela edo gora egingo badute ere, hazkundera neurritsua izango dela; hala ere, argi dago lurraldeen arabera bilakaera desberdina izango dela.
- ρ Horrela, azken urtean Arabako eta Bizkaiko batez besteko prezioek izandako gorakadak ez du batez besteko orokorra gainditu (+%3 eta +%5, hurrenez hurren, azken hiruhilekoan murrizketa izan bada ere). Gipuzkoan, berriz, prezioek gorakada esanguratsua izan dute (+%16).
- ρ Gipuzkoak izandako hazkunderaren ildotik azpimarragarria da bertako merkata neurri handi batean hiruhileko bakoitzean antzemandako etxebizitzaren ezaugarri eta kokapenaren mende dagoela. Modu berean, gerta daiteke merkatu inmobiliarioak mugimendu gutxi duenean, orain bezalaxe, etxebizitza merkeagoak eskaintzea eta prezio altuen duten etxebizitzak stockean uztea; horrela, batez besteko prezioa areagotzea lortuko da.
- ρ Hori dela eta, prezioen bilakaera aztertzerakoan joera orokorrei erreparatu behar zaie (3.9 grafikoan adierazten den bezala) hiruhileko jakin batetako emaitzei baino gehiago. Horrela, Bizkaian eta Araban azken hiruhilekotan nabarmendutako joerari eutsiko zaiola esan daiteke, hau da, prezioek gorakada neurritsua izango dute. Gipuzkoan, ordea, denbora batean prezioei eustea lortu ondoren, badirudi berriro ere gora egingo dutela; edonola izanda ere, gorakada hori 1999 eta 2000 urteetakoa baino neurritsuagoa izango da. Azkenik, gogoan izan, aipatutakoa baieztatzeko datozen hiruhilekoetako emaitzak aztertzea ezinbestekoa dela.

¹⁰ *Aipatutako prezioak* bere etxebizitza *agentzia inmobiliario* baten bitartez saldu nahi duen eskaintzaileak erabakitako prezioak dira; horrela, kontuan hartu behar da: 1) eskatzen diren prezioek, normalean, alde negoziatzaileen artean akordioi batera iristean ordainduko den prezioa gainditzen dutela eta, 2) bitartekari gabe saltzen diren etxebizitzaren azterketatik kanpo daudela.



- ρ Termino absolutuetan, Gipuzkoako batez besteko prezioa 3.297 €/m² da, Arabakoa 2.787 €/m² eta Bizkaikoa 2.351 €/m².
- ρ 2002ko hirugarren hiruhilekoan erregistratu den etxebizitzaren batez besteko prezioa 224.000 € da: Gipuzkoan 291.000 € eta Bizkaian 197.000 €.

3.9. Grafikoa Etxebizitza erabilien m2ko prezioa, lurralde historikoen arabera.



- ρ Gaur egun antzemandako salgai dauden etxebizitza erabilien prezioen profilaran banaketa, 2001eko hirugarren hiruhilekoan antzemandakoaren antzekoa da. Eskaintzaren %80k 150.000 € gainditzen du, (%76, 01-III) eta %62k, berri, 180.000 € gainditzen du. Azpimarragarria dugu Gipuzkoaren kasua, non hiruhileko honetan antzemandako etxebizitzaren %44k 300.000 € prezioa gainditzen duen.


3.32. Koadroa Salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tartean arabera.

PREZIOA	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
< 54 mila €	0,3	0,4	0,7	--
54,1- 72,1 mila €	0,4	1,0	0,5	0,2
72,1-96,2 mila €.	1,2	1,1	2,2	0,9
96,3-120,3 mila €. .	5,0	2,7	4,8	6,1
De 120,4 a 150,3 mila €	13,2	9,0	7,5	16,8
150,4-180,3 mila €.	18,1	17,6	11,9	20,1
180,4-300,5 mila €.	33,9	44,5	28,4	30,9
300,6 mila € eta gehiago	27,9	23,6	44,1	24,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3.hiruhilekoa.



3.10. Grafikoa Prezio-tarteen arabera etxebizitza erabilien banaketa, Lurraldeka.





4. ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK



4. ALOKATZEKO DAUDEN ETXEBIZITZAK

- ρ 2002ko hirugarren hiruhilekoan egindako inkestaren arabera, **alokairuan da-
goen etxebizitza-kopurua** 862 unitatekoa da: horietatik 471 libreak dira
(partikularrenak) eta 391 eraikuntza berriko etxebizitza babestuak dira (64
BOE eta 327 sozialak).
- ρ Merkatu libreak izandako bilakaerari erreparatuz gero, eskainitako bolumena
duela urtebetekoa baino %3 handiagoa da. Lurraldeen arabera Araban eta Gi-
puzkoan hazkunde garrantzitsuak ezagutu dituzte; Bizkaiian, ordea, beheraka-
da.
- ρ Segmentu babestuari dagikionez, urteko bariazio-tasa %3 ingurukoa da eta
hazkunde handiena Bizkaiari dagokio eta Gipuzkoan eskainitako etxebizitza—
kopurua, berriz, gutxitu egin da. Araban egindako eskaintza azken hiruhile-
koetan egindako berdina da.
- ρ Alokatzeko etxebizitzen **batez besteko tamaina** 90 m² erabilgarri da, hain
zuzen, Gipuzkoako 88 m² eta Arabako 94 m² bitartean. Etxebizitza babestuen
azaleraren batez besteko balioa 79 m² da (82 m² , 01-III aldian): Gipuzkoan
74 m² dira eta Araban, berriz, 85 m².
- ρ 75 m² baino gutxiagoko etxebizitza babestuen eskaintzak izandako areagot-
zea benetan da azpimarragarria (gutzizkoaren %24 eta 02-II aldian %8).
- ρ EAE bere osotasunean hartuta, **merkatu librearen hileko errenta** 681 € da
(+9%, 01-III aldiarekiko). Errenta altuena, ohikoa den bezala, Arabakoa da
(750 €/hilean).
- ρ **Segmentu babestuaren batez besteko hileko errenta** 189 € da (327 €
BOE eta 162 € sozialak).



4.1. Koadroa Alokairu librea eskainitako etxebizitzak eta errentak lurralde historikoka.

	ALOKAIRU LIBREA		HILEKO ERRENTA	
	Etxebizitza-kop.	± % (*)	Euro	± % (*)
Araba.....	80	73,9	750,4	-2,5
Gipuzkoa.....	128	48,8	742,1	10,3
Bizkaia.....	263	-19,3	630,3	5,9
EAE.....	471	2,8	681,3	9,0

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko bariazioa. Aurreko urteko HJAen lagin-oinarri beraren gainean kalkulatu.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3.hiruhilekoa.


4.2 Koadroa Alokatzeko librea eskainitako etxebizitzak eta errentak lurralde historikoka.

	ALOKAIRU BABESTUA		HILEKO ERRENTA	
	Etxebizitza-kop.	± % (*)	Euro	± % (*)
Araba.....	230	0,0	180,0	0,0
Gipuzkoa.....	52	-61,8	361,3	77,0
Bizkaia.....	109	738,5	125,4	4,2
EAE.....	391	3,2	188,9	1,6

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko bariazioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.

4.1 Grafikoa. Alokatzeko libreen batez besteko errenten bilakaera, lurralde historikoen arabera.





4.3 Koadroa. Alokatzeko eskaintako etxebizitzaren ezaugarriak

	LIBREAK (%)	BABESTUAK (%)
GUZTIRA	100,0	100,0
AZALERA		
< 60 m ²	11,5	10,0
61-75 m ²	22,1	13,8
76-90 m ²	23,4	76,2
91-120 m ²	28,5	--
> 120 m ²	14,6	--
HILEKO ERRENTA.....		
150 Euro bitartean.....	1,7	24,8
150,01 a 240 Euro.....	0,6	61,9
240,01 a 451 Euro.....	6,2	13,3
451,01 a 601 Euro.....	18,7	--
601 Euro baino gehiago.	72,8	--

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2002ko 3. hiruhilekoa.



5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA ESPARRU GEOGRAFIKOEN ARABERA



5. ETXEBIZITZEN ESKAINITZA ESPARRU GEOGRAFIKOEN ARABERA

5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA LIBRE BERRIAK

a) *Eskainitako etxebizitza-kopurua*

- ρ Esparru geografikoen arabera etxebizitza berri librearen eskaintzak izandako banaketari erreparatuz gero ikusiko dugunez, hiriburuak eta eskualde-egiturak dira eskaintzaren %72 lortu dutenak (%28 hiriburuetan eta %44 aipatu eskualdeetako udalerrietan).
- ρ 2001eko hirugarren hiruhilekoan izandako banaketaren antzekoa da aurtengo. Orduan, eskaintzaren %75 hiriburuetan edo inguruko eskualde-egituretako udalerrietan biltzen zen.
